

EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK
herri administrazioan, arlo juridikoan eta kriminologiaren esparruan

EUSKARAREN ERABILERA POLIZIAREN ALORREAN:
Segurtasun sailean euskararen erabilera normalizatzeko plana 2014-2017

Kevin ETXEKOLONEA MATA

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Zenbait lan jakingarri 2.1 “Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?” 2.2 “Hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan: EAEn, Nafarroan eta Euskal Herriko Iparraldean” 2.3 “Euskaldunon hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan” **III. Segurtasun sailean euskara normalizatzeko plana 2014-2017** 3.1 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Plana egiteko arrazoiak eta gaur egungo egoera. 3.2 Euskararen Erabilera Plana Ertzaintzan. 3.3 Euskararen Erabilera Plana egiteko Batzordeak. 3.3.1 Batzorde Nagusia 3.3.2 Batzorde Teknikoa 3.3.3 Negoziazio Batzordea **IV. Ondorioak eta ikuspuntu pertsonala. V. Bibliografia**

I. Sarrera

Gaur egun, nahiz eta euskara hizkuntza Euskal Herri osoan hitz egin, ez da hizkuntza-ofiziala eremu guztietan. Horren ondorioz, arazoak sortzen dira hizkuntza-eskubideei buruz hitz egiten dugunean, jendeak eskubide ezberdinak izango dituelako bizi den tokiaren arabera.

Hizkuntza eskubideak zer diren azaltzeko, esan behar dugu ez dagoela definizio zehatz bat, baina orokorrean pertsonen urratzen zaizkien eskubideak direla badakigu.¹

Urratzen diren eskubide horien artean, poliziaren eta herritarren arteko komunikazioa dago; horregatik, lan honen helburua Ertzaintza alorrean euskararen erabilera normalizatzeko plana azaltzea izango da.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 30ean, Euskara Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeko erabakia hartu zuen. Plan honek, hiru langile publiko mota ditu: funtzionarioak, lan-kontratadun langileak eta ertzainak.

Ertzaintza, Gernikako Estatutuak bere 17. artikuluan zehazten duen moduan, “*Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako foru-araubidearen eguneratze-prozesuaren barritik, Euskal Herriko erakundeei egokituko zaie, Estatutu honetan zehazten den eran, autonomia-lurraldean gizakien eta ondasunen babeserako eta herri-bakea zaintzeko Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea*”, Euskadiko polizia integrala da.

Euskadin, bai euskara bai gaztelania hizkuntza ofizialak dira; horregatik, Ertzaintzak herritarrei polizia-zerbitzua gaztelaniaz eta euskaraz eskaini nahi die.

II. Zenbait lan jakingarri

¹ BUJANDA, Ioana: “*Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian*”. *Garalex*, 1 or.

Honen inguruan, bereziki hiru lan egin dira bai “*Kriminologia Ikasten*” bai “*Zuzenbidea Ikasten*” aldizkarietan argitaratu izan direnak. Kriminologiakoari lan bat dagokio, eta Zuzenbidekoari, aldiz, bi lan. 2016. urtean lehenengoa publikatu zen, eta 2017. urtean, ordea, beste biak; beraz, kronologikoki aipatuko ditugu.

2.1 “Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?”²

2016an, “*Zuzenbidea Ikasten*” aldizkarian, Itsaso Valerok gai honen inguruko lana argitaratu zuen “Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?” tituluarekin.

Autore honek, lehenik eta behin araudiaren azterketa egiten du, besteak beste honako legeak kontuan harturik: 1978ko Espainiako Konstituzioa, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Gutuna, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, EAEko Autonomia Estatutua, 13/1982 Lege Organikoa Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzekoa, etab. Gainera, segurtasun alorreko bestelako lege batzuk ere aipatzen ditu: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 7/2007 legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 legea, eta Uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Poliziari buruzkoa.

Bestalde, aitortutako eskubideei buruzko analisia egin zuen, eta berri batzuen bitartez hutsune eta arazoak daudela erakutsi izan zigun.

2.2 “Hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan: EAEn, Nafarroan eta Euskal Herriko Iparraldean”³

“*Kriminologia Ikasten*” aldizkarian, Nerea Capellánek aurten argitaratu izan du “Hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan: EAEn, Nafarroan eta Euskal Herriko Iparraldean” lana. Lan honetan, hiru lurralde hauetako bakoitzean euskararen egoera zein den aztertu, eta hain zuzen ere euskaldunok poliziaren aurrean hizkuntzari dagokionez ditugun eskubideak zeintzuk diren azaltzen ditu.

Horretarako, lehenik eta behin Nazioarteko Legeria azaltzen hasten da. Hemen kontuan hartu izan ditu hainbat hitzarmen garrantzitsu, besteak beste, Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuna edota Espainiako Konstituzioa.

Ondoren, hizkuntza-eskubideak zein egoeratan dauden Euskal Herrian azaltzen ditu. Honen harira, EAEn kasuan, esaten du euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera, eta Autonomia Estatutuaren bidez onartuta dagoela. Bestalde, Euskal Herriko Poliziari buruzko legeak hizkuntza-eskubideak biltzen dituela dio.

² VALERO, Itsaso: “Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?”

³ CAPELLÁN, Nerea: “Hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan: EAEn, Nafarroan eta Euskal Herriko Iparraldean”.

Beste alde batetik, hizkuntza-eskubideak Nafarroan, Nafarroako Foru Komunitatearen Estatutuaren bidez araututa dagoela deritzo. Honen arabera, Nafarroan ofizialtasun partziala dago, hau da, hainbat eskualdetan euskara hizkuntza ofiziala eta beste batzuetan ez.

Beraz, poliziarekiko harremanetan, Nafarroako eremu euskaldunean EAEko eskubide berak izango dituzte, baina eremu ez-euskaldunean ez. Eta azkenik, Iparraldeko eremua Frantziako Konstituzioaren menpe dago, zeinak ez du euskara hizkuntza ofizialtzat hartzen.

Capellánen arabera, azken finean, jendeak gero eta ezagunak ditu bere hizkuntza-eskubideak, eta hauek bermatu daitezke saiatzen da.

2.3 “Euskaldunon hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan”.⁴

“*Zuzenbidea Ikasten*” aldizkarian honi buruz argitaratu izan den azkeneko lana, Unai Etxeberriak egindakoa izan da. Autore honek, “Euskaldunon hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan” artikulua argitaratu izan du aurten.

Honek ere, Nerea Capellánen antzera, poliziarekin euskaraz komunikatzeko eskubidea bai Euskal Autonomia Erkidegoan baita Nafarroan eta Iparraldean ezberdindu izan ditu. Lan honen ezberdintasuna, Ertzaintzaren barruan euskara normalizatzeko ekimenak azaltzen duen atala agertzen dela da.

Bereziki hiru artikulua horiek izan dira gure gertuko ikaskideek egindako lanak, garrantzitsuak izan behar ditugunak gure ekarpen berria egiteko. Honetan gehiago ez sakonduz, Segurtasun Sailean Euskararen erabilera normalizatzeko planaren azalpenarekin jarraituko dugu.

III. Segurtasun Sailean euskara normalizatzeko plana 2014-2017

Arestian esan dugun bezala, Euskadin euskara eta gaztelania hizkuntzen ofizialtasuna maila berean egonda, Ertzaintzak herritarrei polizia-zerbitzua gaztelaniaz edota euskaraz eskaini nahi die.

3.1 Ertzaintzan Euskararen Erabilera Plana egiteko arrazoiak eta gaur egungo egoera.⁵

Gaur egun, Ertzaintzak euskararen inguruan dituzten gaitasunak igo izan dira, baina argi dago euskara erabiltzeko dituzten baliabideak oraindik gutxi batzuk direla, horregatik, Euskararen Erabilera plana aurrera eramatea premiazkoa da. Plan honi esker, hizkuntza politika antolatua, bateratua eta eraginkorragoa bideratuko da. Honekin, lehen aldia izango da euskara hizkuntzaren erabileraren aldeko neurriak hartzen direla.

Duela hamabost urte, egoera oso ezberdina zen. Gutxi batzuk bakarrik zekiten euskaraz mintzatzen, baina gaur egun egoera hori aldatu egin da, batez ere berri sartu diren ertzain gazteen kasuan.

Lan honen bitartez, euskaraz ez dakiten ertzainek, bere kabuz euskara ikastera bultzatu eta laguntzen diete. Horretaz gain, ahaleginak egiten ari dira Ertzaintzan sartzen direnen kopuru

⁴ ETXEBERRIA, Unai: “*Euskaldunon hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan*”.

⁵ Ertzaintzan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2014-2017, or. 11-22

gehiena euskalduna izateko. Honekin, ulertzen da urte batzuen buruan euskararen egoera Ertzaintzan asko hobetuko dela.

Hurrengo taulan argi ikusiko dugu nola dagoen gaur egungo egoera Euskara mailan, adinaren aldetik:

Adin tartea	HE2	HE2(%)	HE1	HE1(%)	B1	B1(%)	< B1	< B1(%)	GUZTIRA
25era arte	0	0,00	17	73,91	1	4,35	5	21,74	23
26tik 30era	6	2,24	163	60,82	19	7,09	80	29,85	268
31tik 35era	14	2,20	288	45,28	62	9,75	272	42,77	636
36tik 40era	13	1,77	352	47,89	74	10,07	296	40,27	735
41etik 45era	48	3,31	678	46,76	79	5,45	645	44,48	1450
46tik 50era	43	2,00	723	33,71	45	2,10	1334	62,19	2145
50etik gora	32	1,22	629	23,98	21	0,80	1941	74,00	2623
GUZTIRA	156	1,98	2850	36,17	301	3,82	4573	58,03	7880

Taula honetan argi ikusi dezakegu, adibidez, 25era arte, B1 baino gutxiago duten pertsonak 5 direla, eta 50etik gorakoak 1941 pertsona. Aldea nabarmena da, eta oso garbi ikusten da adina igo ahala gero eta pertsona gehiagok dutela euskara hizkuntzaren beharra.

3.2 Euskararen Erabilera Plana Ertzaintzan.⁶

Ertzaintzan erabiliko den Plana dela esaterakoan, honako langileei aplikatuko zaie: ertzain funtzionarioei, praktiketako agenteei eta prestakuntzan dauden agenteei.

Plan honek duen azken helburua, Ertzaintzan dauden hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortzea da, hau da, euskara eta gaztelania maila berean egotea, eta batez ere euskaraz lan egitea posible izatea, denek gaztelaniaz hitz egiten jada dakitelako. Beraz, lortu nahi dena poliziek herritarrei beraien zerbitzua euskaraz ematea ere da. Horretarako, ezinbestekoa da administrazioen arteko koordinazioa eta elkarlana. Lan zaila izanda eta denbora asko behar duena, pixkanaka euskararen erabilera lan harremanetan gehitu beharko da.

Beraz, Normalizazio Planak proposatzen duen azken helburua honako hau da: *“Hizkuntza ofizial bien arteko itxurazko berdintasunetik (eta ez beti), urratsez urrats, egiazko berdintasunera heltzea, betiere, herritarren hizkuntza aukerak errespetatu. Horregatik, Ertzaintzan gure administrazioaren hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukerak eta eskubideak bermatu egin behar dira. Eta horretarako, Plan honen laguntzarekin, Ertzaintzan aukera gutxi duen hizkuntza, euskara, bultzatu nahi da.”*

Hori guztia aurrera eramateko, Ertzaintzaren barruan Euskara Zerbitzua egotea ezinbestekoa da. Zerbitzu hau arduratuko da ekintza guztien kontrolaz eta koordinazioaz.

3.3 Euskararen Erabilera Plana egiteko Egituraketa.⁷

⁶ Ertzaintzan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2014-2017, or. 51-53

⁷ Ertzaintzan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2014-2017, or. 54-57

Bestalde, Plan honen jarraipena egiteko pertsona talde egitura bat egon behar da.

3.3.1 Batzorde Nagusia.

Osaketa:

- Presidentea: Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea.
- Presidente orde: Giza Baliabideen zuzendaria.
- Idazkaria: Prestakuntza eta hizkuntza Normalizazio atalburua.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizazioko zuzendaria.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako ordezkari bat.
- Ertzaintzaren zuzendaria.
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Planaren Batzorde Teknikoaren ordezkari bat.
- Langileen ordezkari bat.

Funtzio nagusiak:

- Planaren jarraipen-txostenak, azken txostena eta derrigortasun data eta hizkuntza eskakizunen esleipena aztertzea eta ebaluatzea.
- Erakundeetan eragina izango duten erabaki estrategikoak hartzea.
- Planaren helburuak betetzerakoan sortu ahal diren arazoak saihesten laguntzea.

3.3.2 Batzorde Teknikoa.

Osaketa:

- Presidentea: Prestakuntza eta Hizkuntza Normalizazio atalburua.
- Idazkaria: Prestakuntza eta hizkuntza Normalizazioko teknikaria.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaritzako ordezkaria.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzako ordezkaria.
- Ertzaintzaren zuzendaritzako ordezkaria.
- Langileen ordezkari bat.

Funtzio nagusiak:

- Planaren ekintzen programa onartzea.
- Planaren Jarraipena kudeatzea.
- Ebaluaziorako derrigorrezkoak diren txostenak egitea.
- Urtero erabilera planak eskatzen dituen doitasunak egitea.
- Ertzaintzan euskara erabilerak gora egin dezan behar diren baliabideak eta hartu behar diren neurriak hartzea edo eskatzea.

3.3.3 Negoziazio Batzordea.

Osaketa:

- Presidentea: Giza baliabideen zuzendaria.
- Idazkaria: Prestakuntza eta hizkuntza Normalizazio atalburua.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaritzako ordezkaria.
- Ertzaintzaren zuzendaritzako ordezkaria.
- Langileen ordezkari bat.

Funtzio Nagusiak:

- Langileen ordezkariak informatzea.
- Egindako lanak baloratzea.
- Ertzaintzaren begira proposamenak azaltzea.

IV. Ondorioak eta ikuspuntu pertsonala

Euskara gaur egun gaztelania baino maila baxuagoan dagoela argi dago. Oraindik lan asko gelditzen da bi hizkuntza hauek parean jartzeko, baina egiten den edozein lan ez da gutxi izango.

Ertzaintza alorrari dagokionez, ikusi izan dugu gazteen gehiengoak euskara dakitela. Gainera, euskararen egoera, egiten ari diren ikaskuntza lantegiei esker hobetzen ari da gure inguruko polizia munduan. Polizia zaharrek dira euskara gutxien dakiten pertsonak, ez da gauza bera gertatzen gazte eta sartzen ari diren polizia berriekin. Hori esan nahi du, urte batzuen buruan egoera hobetu daitekeela, euskara dakiten pertsonak lanean hasten ari direlako eta euskara ez dakiten jende heldua erretiroa hartzen doalako.

Ezinezkoa da egoera egun batetik bestera aldatzea, baina oso garrantzitsua da euskara hizkuntza arlo honetan barneratzen hastea, modu horretan denboraren poderioz hobekuntzak ikusi izan ditzakegu.

V. Bibliografia

BUJANDA, Ioana: “*Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian*”. *Garalex*, 1 or. <http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/01/Hizkuntza-Eskubideak-Euskal-Herrian-Ioana-Bujanda.pdf>

VALERO, Itsaso: “*Zein eskubide bermatzen zaizkie herritarrei segurtasunaren alorrean?*” <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Zuzenbide/article/view/16598/14602>

CAPELLÁN, Nerea: “*Hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan: EAEn, Nafarroan eta Euskal Herriko Iparraldean*”. <http://www.ehu.es/ojs/index.php/KI/article/view/18047/15657>

ETXEBERRIA, Unai: “*Euskaldunon hizkuntza-eskubideak poliziarekiko harremanetan*”. <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Zuzenbide/article/view/18044/15654>

Ertzaintzan euskararen erabilera Normalizatzeko Plana 2014-2017. http://programa.irekia.euskadi.eus/uploads/asset/file/119/Euskararen_Erabilera_Plana.pdf